



**SOZIOLINGUISTIKA  
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko  
ikergunea

---

# Soziolinguistika albistaria

---

**108. zenbakia**

2021eko urriak 7 – urriak 21

---

## Soziolinguistika Klusterreko albisteak

### **Migrazioen eta harrera linguistikoaren gaia landuko du aurtengo Euskal Soziolinguistika Jardunaldiak**

Azaroaren 11n Iruñeko Baluarte Kongresu Jauregian egingo da Soziolinguistika Klusterrak antolatzen duen Euskal Soziolinguistika Jardunaldiaren XIII. edizioa. Nafarroako Gobernuak Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin elkarlanean antolatu da aurtengoa. Albiste honetan egitaraua eta izenematea dituzu eskuragarri.

### **Bizkaiko hizkuntza aniztasuna eta euskararen balio integratzailea**

[ARGIA] Antolatzaileen ustez, "Bizkaian ditugun hizkuntza guztiak aberasten dute lurraldea, eta euskara Bizkaian dauden hizkuntza guztientzat aterpe eta zubi izan daiteke. Euskaratik eta euskaraz hizkuntza guztien balioa aitortu dezakegu". Aurtengo otsailean aurkeztu zuen Soziolinguistika Klusterrak egindako Bizkaiko hizkuntza aniztasunaren mapa eta horren harira mahai-inguru bat antolatu dute urriaren 21ean.

### **Eskola Hiztun Bila XXV - Egindakotik ikasten, etorkizuna euskaraz ardatzen**

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren Ulibarri programak Eskola Hiztun Bila jardunaldia antolatzen du urtero, udazkenean. Aurtengoa 25. edizioa izango da eta urriaren 27 eta 28an egingo da, Donostiako Kursaal Jauregian. Bertan hartuko dute parte, besteak beste, Soziolinguistika Klusterreko Maialen Iñarra eta Beñat Garaioak.

## **Paul Bilbao eta Beñat Garaio solasean: "Gaur egun, euskara ez dago erdigunean"**

[ARGIA] Euskararen kaleko erabilera behera doa; hori adierazten dute datuek. Nola izan daiteke hizkuntzaren ezagutza eta erabilera sustatzeko inoiz baino baliabide eta ahalegin gehiago egiten direnean erabilerak behera egitea? Gehiago jakiteko, Egizuk eta Azebarrik antolatu duten Euskal(e)gintza hitzaldietara gonbidatutako aditu bigaz elkartu gara.

—

## **Ikerketak**

### **The Future Game ekimenak inkesta hasi du gazteen artean etorkizuna nola irudikatzen duten ezagutzeko**

[Europa Press] The Future Game ekimenak 'The Future Game. Bihar zer?' izenburuko inkesta abiatu berri du Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) gazteen artean. Egitasmoaren helburua da, 2050. urtea eszenatoki gisa hartuta, etorkizuna nola irudikatzen duten ezagutzea eta etarrronka berriei modu kolektiboan erantzutea.

—

## **Jardunaldi, hitzaldi eta ikastaroak**

### **Udal hizkuntza-politikak aztergai, jardunaldiak antolatu dituzte lankidetzan Eusko Jaurlaritzak eta Kontseiluak**

[HPS] Azaroaren 18an eta 19an Donostiako Miramar Jauregian egingo dira jardunaldiak. Doakoa da, eta ireki da izen-ematea kontseilua.eus webgunean. Arituak eta adituak txandakatuko dira, bai eta ikuspegi juridikoa, praktikoa eta teknikoa ere.

## **Seminarios de multilingüismo CaMiNo**

[Centro de investigación MirCo] La Red de Multilingüismo del consorcio de Universidades CIVIS (CaMiNo) organiza su serie inaugural de seminarios sobre Multilingüismo y Política Lingüística.

## **Nous talents en sociolingüística catalana: 8a edició**

[Xarxa CRUSCAT] El 27 d'octubre i 8 de novembre de 2021 tindran lloc els actes de la vuitena edició dels «Nous talents en sociolingüística catalana». Una iniciativa de la Societat Catalana de Sociolingüística (SOCS) que vol reconeixer treballs de fi de grau i de fi de màster d'excel·lència en les diferents línies de recerca en sociolingüística a les universitats dels Països Catalans.

## **Lanbide Heziketa Duala euskaraz egiteko onurak hizpide Hizkelan jardunaldian**

[Euskaraba] Laneki Lanbide Heziketa euskaraz sustatzeko eta hobetzeko elkarteak Lanbide Heziketa Duala (LH Duala) euskaraz egitearen onurak azaltzen dituen ikus-entzunezkoa ekoiztu du, Arabako Foru Aldundiko Lanabes egitasmoaren baitan.

## Mintegiko materialak eskuragarri: Euskararen diskurtsoak enpresetan

[HPS] Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetzak lan-munduan euskararen gainean dauden diskurtso nagusiak aztertzeke jardunaldia egin du. "Euskararen diskurtsoak enpresetan" izenburupean, eremu sozioekonomikoan euskara nola edo zenbateraino aldatu den aztertuko dute eta materialak argitaratu berri dituzte.

## "Nafarroan Euskararen aldeko jarrerak indartzeko aukerak" jardunaldia osorik ikusgai eta zuen iritzia emateko aukera

[Topagunea] "Nafarroan Euskararen aldeko jarrerak indartzeko aukerak" jardunaldia Nafarroan gero eta herritar gehiago euskararen indarberitze prozesuarekiko enpatiko izateko diskurtsoaz, praktikaz eta bestelako baliabideez hausnartzeko helburuarekin burutu genuen.

## O galego na escola. Propostas para o futuro da lingua no eido educativo

[Carta Xeométrica] A Fundación Luzes argallou este encontro sobre a lingua na escola presentado por Manuel Bragado. Os participantes son Valentina Formoso, Henrique Monteagudo, Mariló Candedo e Pilar Ponte. Recollo algunhas ideas das súas intervencións.

---

## Liburuak eta artikuluko zientifikoak

### El sentido de publicar en una lengua minorizada: el euskera en las revistas académicas

[The conversation] El interrogante que surge es: ¿dónde quedan las lenguas minorizadas en este panorama investigador? El euskera, y probablemente otras lenguas minorizadas, podría considerarse víctima de esa situación dicotómica en la que se encuentran la universidad y la comunidad científica en general.

### L'ús social del català: debilitats i oportunitats - Marina Massaguer

[Blog RLD] L'objectiu d'aquest apunt és posar de rellevància una sèrie factors que, des d'una perspectiva sociolingüística, ajuden a explicar la situació en què es troba el català en l'actualitat pel que fa a l'ús social en el cas del Principat de Catalunya.

### Officiality and strategic ambiguity in language policy: exploring migrant experiences in Andorra and Luxembourg

[Language Policy] This article examines de jure language officialization policies in Andorra and Luxembourg, and addresses how these are discursively reproduced, sustained or challenged by members of resident migrant communities in the two countries.

*Dokumenturen bat edo informazio bibliografiko gehiago nahi izanez gero, jo zuzenean [HABE Liburutegira \(liburutegi@habe.eus\)](mailto:liburutegi@habe.eus), beraiek arduratuko baitira zure eskaria bideratzen.*

## Bestelako albisteak

### «Eusko Ikaskuntzaren eta zazpi unibertsitateen helburuei erantzuten dien hitzarmena da»

[kazeta.eus] Eusko Ikaskuntzak hitzarmen bat izenpetu du urriaren 7 huntan Euskal Herriko zazpi unibertsitateekin, Paue eta Aturrialdeko Unibertsitatea barne. Ana Urkiza, Eusko Ikaskuntzako lehendakariak hitzarmenaren nondik-norakoak azaldu dizkio KAZETA.EUSi.

### (Lan deialdia) Postdoctoral Research Associate in Language Policy

[Queen's University of Belfast] A Postdoctoral Research Associate position is available at the Queen's University of Belfast for an AHRC-funded project on 'Foreign, indigenous and community languages in the devolved regions of the UK: policy and practice for growth.'



SOZIOLINGUISTIKA  
KLUSTERRA

Euskara biziberritzeko  
ikergunea

#### Babeslea:



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

#### Bazkide partaidea:

emun<sup>®</sup>  
Euskara eta  
berrikuntza soziala